

"Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa gazteei zuzendutako jarduera, programa eta zerbitzuetan" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiaren 2020ko Prestakuntza Planaren lehen ikastaroa egin da Bilbon

'Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa gazteei zuzendutako jarduera, programa eta zerbitzuetan' ikastaroa egin da **Bilbon otsailean**. Kurtso honen helburua esku-hartze sozialean dihardutenen, udaleko teknikariak, aisialdiko begiraleak eta gazteekin lan egiten dutenen prestakuntza gauzatzea da. Aisialdi espazioetan aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren inguruan ikuspuntu zabala izan nahi dutenentzat bideratuta dago.


Ikastaroa **Ruth San Cristóbal, Itziar Sánchez eta Nagore Álvarez, Amesten, aniztasun funtzionala eta inklusioa elkarteko koordinatzaileek** eman dute.

25 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 72, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 12 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Azkenik, % 16k bestelako soslai profesionalak zituzten.

Ikastaroak 13 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

**Ikastaroaren balorazioa
(batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginga, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta